

LOS DESEOS OLVIDADOS



Genero eta sexu aniztasun ikuspegia

Garapenerako Kooperazioan,

Hiritartasun Globalerako Hezkuntzan

eta etorkinek eta errefuxiatuek dituzten GGEEen

sustapenean eta babesean

nahia
Perspectiva de género y de diversidad sexual

Babesa



nahia
Diversidad Sexual e Identidades de Género

(Euskaraz: asmoa, gogoa)

*Taldea honakook osatzen dugu: **ALDARTE Gay, Lesbiana eta Transexualen Arreta Zentroa, Errefuxiatuei laguntzeko Euskadiko Batzordea (CEAR-Euskadi) eta Iniciativas de Cooperación y Desarrollo.***

Kooperazioan, Hiritartasun Globalerako Hezkuntzan eta etorkin eta errefuxiatuen GGEEak sustatzeko eta babesteko ikerketak, hausnarketak eta ildo eta ekintzarako estrategiak irudikatu nahi ditugu, Genero eta Sexu Aniztasun ikuspegia kontuan hartuta.

Egileak: Amparo Villar, Esther Canarias, Fernando Altamira, Inmaculada Mujika, Itziar Caballero, Mónica Fernández eta Raquel Celis

Marrazkiak: Asier Gallastegi
Maiatza 2013
Lege zenbakia BI-784-2013



Argitalpen hau Creative Commons-en lizentziapean dago.
http://es.creativecommons.org/blog/wp-content/uploads/2013/04/by-nc-sa.eu_petit.png

Aurkibidea

1. Atala	
Aurkezpena	4
<hr/>	
2. Atala	
Genero eta sexu aniztasun ikuspegira hurbiltzea... 5 intuizio baliatuta	7
<hr/>	
3. Atala	
Genero eta sexu aniztasun ikuspegiak hausnartzen. Gure kokatze teorikoa lantzen.	12
<hr/>	
4. Atala	
Genero eta sexu aniztasun ikuspegia gure jardunbidean	28
<hr/>	
Dokumentu hau egiteko erabilitako bibliografia	37
<hr/>	



1

Aurkezpena

2010eko apirilean Kooperazio eta Garapenerako Ekimenak, Errefuxiatuei laguntzeko Euskadiko Batzordea (CEAR-Euskadi) eta ALDARTE Gay, Lesbiana eta Transexualen Arreta Zentroa lehenengoz elkartu ginen. Hiru erakundeok, Kooperazio (GK) eta Hiritartasun Globalerako Hezkuntza (HGH) arloetan genero eta sexu aniztasun ikuspegiak hitz egiteko gogoak konpartitzen genuen.

Denborak aurrera egin ahala eta bilera, hausnarketa eta eztabaidetan hainbat ordu eman ondoren, aurrerago erabaki genuen **NAHIA** izeneko lan-taldea osatu genuen. Talde honetako kideok hamaika osagai jarri ditugu mahai gainean orain garen lekura heltzeko: komuneko gogo eta xedeak, elkarri diogun aintzatespena eta hainbat lan arlotan dugun eskarmentu eskerga, LGTTBI¹, GK eta HGH eta etorkinek eta errefuxiatuek dituzten giza eskubideen babes eta sustapen eremuetan.

Giza Eskubideen (GGEE) Adierazpenaren ikuspegia dugu bultzatzaile, eta ziur gaude gizakiok gure gorputzez eta prozesuez egiten ditugun hautuetan ere aipatu adierazpenean jasotako eskubideek badutela eragina. Asmo handiko ideia helarazi nahi genizueke: bizi dugun mundu globalizatuan, sexualitatea eta generoa bizitzeko eta sentitzeko era anitzak ditugun gizakiak kontuan hartu gabe, ez dago gizarteak ulertzerik.


NAHIA taldekideok genero eta sexu aniztasun ikuspegia baliatuta, genero ikuspegia modu zabalagoan ulertzen dugu, sexo-genero sistema aditzeko gaur egun nagusi den modu binarioa gaindituta. Ez dugu alde batetik sexu aniztasunaz eta bestetik genero ikuspegiak hausnartu nahi. Batera egin dugun analisiaren bidez, eta orain arte izan dugun genero ikuspegiaren barruan, lesbiana, gay, transexual, transgenero, bisexual eta intersexualak azaleratzeak plazaratu dituen erronkei heltzeko asmoa dugu, betiere GK eta HGH arloetan.

Hauxe da **NAHIA** taldeak plazaratzen duen lehenengo dokumentua. Honen bitartez gure kezka eta galderen partaide egin nahi ditugu gure ingurukoak. Konbentzimenduak baino zalantza eta duda-muda gehiago ditugu, eta erronka honekin zuengana jotzen

¹ LGTTBI: Sigla hauen bidez Lesbianak (emakumeenganako sexu-grina duten emakumeak), Gayak (gizonenganako sexu-grina duten gizonak), Transexualak (jaiotakoan sexu-organoei erreparatuta esleitu dieten generoarekin identifikatuak sentitzen ez diren pertsonak. Gizon transexualak eta emakume transexualak daude), Transgeneroak (jaiotakoan sexu-organoei erreparatuta esleitu dieten generoarekin identifikatuak sentitzen ez diren pertsonak, eta aldi berean, genero-identitate zehatzik aukeratu nahi ez dutenak), Bisexualak (gizon eta emakumeenganako sexu-grina duten pertsonak) eta Intersexualak (medikuntzatik kanpo erabilitako hitza, erabat emakumezkotzat ala gizonezkotzat hartu ezin daitekeen sexu anbigua dutela jaio diren pertsonak). Definizio hauek ez dira itxiak, eraikuntzan daude eta etengabe aldatzen ari dira.

dugu ilusioz beterik. Dokumentu osoan zehar konturatuko zarete erantzunak baino galdera gehiago ditugula. Eta ezin izango genuke beste modu batera jokatu. GK eta HGH lan-arloetan genero eta sexu aniztasun ikuspegia (betiere gure begiradapean) sartzea hasi besterik ez da egin. Erronka honetan nahi genuke zuok bidaide izatea. Hauxe da gure helburua eta espero dugu zuen interesekoa izatea. Gure grina eta gogo handienekin.

Bukatzeko, argitalpenaren kontraste-taldea osatu duten honako hauen gogoia eta ekarpenak eskertu nahi ditugu: Cristina Garaizabal, Gema Celorio, Elo Mayo eta Gerard Coll-Planas. Hauekin batera, Asier Gallastegi ere gogoan dugu, orrialde hauetan ikusiko dituzuen margolanen bidez, kolorea eta ilusioa ekarri baitigu.



2

Genero eta

**sexu aniztasun
ikuspegira hurbiltzea**

Genero eta sexu aniztasun ikuspegiaz ditugu bost intuizio konpartitu nahi ditugu zuekin. Hasierako zertzeladok argitalpen honetako hurrengo ataletan garatzen saiatuko gara.

Lehenengo intuizioa: Eredu nagusiaren ordezkoko aukera

Eredu neoliberalak² bizimoduak ezartzen ditu, bai arlo sozialean, bai ekonomikoan, bai kulturean, bai politikoan... eta sexu eta generoarekin zerikusia duen oron ere badu eragina. Planeta mailako auzi global eskergea ditugu eredu honen eragin-indarraren adibide, baina baita gure egunerokotasuna ere, oharkabean pasatzen zaizkigun hamaika jokaeretan. Sexu eta generoari dagokienez, heteronormari³ eta genero-binarismoari jarraiki, errealitatea modu bakar batean dakusagu, alde zuzenetik ezarri eta mugatutako eredu araberako hainbat arauen bidez.

Bere 'boterea'ri aurre eginez sortutako edozein aukera-proposamen kontrolatu beharra dauka eredu honek, proposamenaren jatorria edozein dela, alor ekonomiko, kulturala... edo sexua edo generoa. Proposamen hauek fagozitu, kriminalizatu, edota gaixotasun gisa hartzen ditu eredu neoliberalak.

Eredu nagusi eta menperatzailea gainditzeko, baliteke errealitatea begiratzeko beste modu bat behar izatea. Elkarguneen eta sistemen analisiaren bidez, eta behatzeko gaien konplexutasuna kontuan hartuta, dimentsio desberdinak (ekonomia, generoa, sexua, kultura, osasuna...) nola gurutzatu eta lotzen diren behatu ahal izango dugu. Aipatu analisiari esker, zapalkuntza- eta pribilegio-esperientzia anitzak hobeto ulertu ahal izango ditugu, eta horiekin batera, pertsonen eta kolektiboek abian jarri dituzten aurre egiteko, erresistentziarako edo transgresiorako mekanismo ugariak ere.

Bigarren intuizioa: Hautatzeko gaitasuna

Badirudi sexu aniztasunaz ari garenean LGTTBI kolektiboaz baino ez garela ari. Gure egitasmo eta estrategietan aipatu kolektiboa kontuan izan behar dugu, noski, baina guk proposatzen duguna haratago doa. Ez gara 'haietaz' ari, 'gutaz' ari gara, gure desioez, gure maitatzeko, harremanak egiteko, goatzeko, besteekin konpromisoak hartzeko moduez ari gara... Hiritartasuna ulertzeko modu zehatz batez ari gara,

² Dubois, A.: 'Desarrollo' eta 'Desarrollo Humano', 'Diccionario de Educación para el Desarrollo' Celorio, G. eta López de Munain, A. (koord.) Hegoa Argit. Bilbo, 2007

³ Guasch, O.: 'La crisis de la heterosexualidad'. Laertes Argit. Bartzelona, 2007

eskubideak eta betebeharrak dituen hiritartasunaz, baita sexuaren eta generoaren alorretan ere.

Gure aburuz, hiritar garen heinean eta beste hainbat kontuen artean, hautatzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna ere badugu. Sexu eta genero kontuetan ere hautatzeko gaitasuna dugu, beraz, norbanako eta komunitate bakoitzaren aukeretatik abiatuta, bizimoduak hautatzeko gaitasuna. Gauzak horrela, ez ditugu soilik LGTTBI pertsonak kontuan hartuko: hautatzeko eta sexualitatea eta afektibitatea bizitzeko 'beste' modu batzuk irudikatzeko askatasunez mugitzen diren pertsonen ere ari gara, oraindik sexu identitaterik hautatu ez dutenez, eta baita modu aske eta zentzudunean hautatzen duten pertsona guztiez.

Gure ustez, gogoan dugun hiritartasuna, sexu identitatea eta genero ikuspegia barne, etengabeko eraikuntzan dago, ez da monolitikoa ezta binarismoak ezarria ere, aldiz, bizitza osoan zehar aldatzen eta lantzen ari den zerbait da. Gure ikuspuntutik, onartezina da 'denak balio du' suposatzea. Haien sexu eta genero hautuak direla medio, planetako hainbat pertsonen egoera iraingarriak bizi dituzte, eta egoera horiek salatzeko aukera emango diguten irizpide etikoak proposatuko ditugu. Ildo honetatik, Gerard Coll-Planas eta Judith Butler-ekin (2006) bat egiten dugu: *"Mugak ezartzeko beharra dago, horrela, askatasun eskakizunak ez du beste batzuen edota norberaren menperatzea edota iraintzea berekin ekarriko."*⁴

Hautatzeko askatasuna beste pertsonekin dugun elkarbizitzaren menpe dago, berau erantzukizun indibidual eta kolektiboa da.

Hirugarren intuizioa: Plazeretik abiatuta

Eredu nagusiak plazera lortzeko moduak kontrolatu nahi lituzke, batzuk besteen gainean jarrita, eta betiere merkatuaren kontrolpean dauden bitartean.

Gure ikuspuntutik, plazera hegemoniaren kontrakoa ere izan daiteke. Bere osagai eraldatzailea ikusteko gai bagara behintzat, jabeakuntza prozesu pertsonal, sozial eta politikoaren arlo gisa hartuta. Horrez gain, plazera tresna politikoa ere izan daitekeen ustea dugu, bizimodu berria eta gertatutakoen aurrean kokatzeko molde berriak

⁴ Coll-Planas, G.: 'La voluntad y el deseo. La construcción social del género y la sexualidad: el caso de lesbianas, gays y trans'. Egales Argit. Madril, 2010

sortzeko gaitasuna duena, eta pertsona bakoitzarengan eta baita errealitatean ere eragina duena. Plazererako aukerak mozten dituen pentsamolde nagusia gorabehera, plazera arriskuarekin, okerrarekin eta ahuleziarekin lotzen baita.

Laugarren intuizioa: Beste errealitate batzuekin bat eginik

Aipatu legez, genero eta sexu aniztasun ikuspegiak pertsona guztiak hartzen ditu kontuan, nolana ere, hiritar oso jardun ezin dutenengan jarri nahi dugu arreta berezia. Sexu aniztasuna edota genero identitatea beregain bizi ezinean, eskubideak aldioro urratzen zaizkien pertsonak hartu ditugu hizpide.

Hiritartasun globalaren kontzeptuan sakontzeari eta gizabanako eta kolektibo hauekin bat egiteari garrantzitsu deritzogu.

Sexu eta identitate hautuek eta gizarte bakoitzak erabilitako bazterkeria-mekanismoek ahultzen dituztenekin eta halaxe jaio direnekin bat egin nahi dugu.


Guztion transformaziorako estrategiak irudikatu eta sortu nahi ditugu, errealitate zehatzetara hurbilduta eta etnozentrismoa eta erlatibismo kulturala bazter utzita.


Bosgarren intuizioa: Gure iturburu diren aurreko ekarpenetatik abiatuta

Orri hauetan jaso ditugun hausnarketa, lanketa eta proposamenen bidez, urrats berriak eman nahi ditugu, aurretik emandako urratsetatik abiatuta. Genero teoriak eta teoria feministak osatzen dute gure iturburua, beste pertsona eta erakunde batzuek urte luzeetan garatu dituzten hausnarketak eta 'borrokak' dira gure erroak. Ahaleginok baloratu behar ditugu eta alde batera utzi gabe, aurrerapauso berriak proposatu nahi ditugu, egiten dihardugunaren konplexutasun maila handitzen lagunduko digutenak, hausnarketa- eta ekintza-ildo berriak proposatzen lagunduko digutenak, askeago izateko bidean.

Bost intuizio... bat bakarra osatzen dutenak

Bost intuizio hauek elkarrekintzan ari dira eta guztiona den intuizio zabalago baten sorburu dira: genero eta sexu aniztasun ikuspegiak **eredu nagusiaren aurreko alternatiba** eskaintzen du, **hautatzeko gaitasun** eta **plazeraren bidez**, **beste errealitate batzuekin bat eginik** eta **gure iturburu diren aurreko ekarpenetatik abiatuta**.





Genero eta

sexu aniztasun ikuspegiak

hausnartzen

3.1. ZE ESANAHI EMATEN DIEGU ERABILTZEN DITUGUN KONTZEPTUEI?

GENEROAK

Teoria feministak genero kontzeptuari egindako ekarpenei esker eta jardueretan eta bizitzan konpromisoa hartu duten emakume askoren lan politikoari esker, gaur egun oinarritzko tresna teorikoa dugu. Teoria feministak bizi ditugun gizarteak ulertzen laguntzen digu, patriarkatua agerian utzi digu eta emakume eta gizonen arteko menperatu-menperatzaile eredu oinarri dituzten botere-harremanei aurre egiteko bidea eskaintzen digu. Ezberdintasun biologikoak oinarri dituzten desoreka sozialak azaltzen laguntzen digu, eta horri esker, desorekei kontra egin ahal diegu. **Generoa**, gizakiak gizon eta emakume eratzen dituen **eraikuntza sozial** gisa ulertzea Teoria feministari zor diegu.

Genero **prozesuaren** bidez, gizarte bakoitzaren emakumezkoen eta gizonezkoen⁵ ezaugarriak geureganatzen ditugu: nolako emakume ala gizon izan, halako portaera (nola jokatzeko dugun) eta subjektibotasuna (gure pentsaera ala sentimena) eduki. Gorputz biologikoen arteko ezberdintasunak eta beraien ezaugarri sozialak hobeto ulertzen ditugu analisia egiteko kategoria honen bidez. Generoa eraikuntza soziala bada, **eraikitakoa azaldu** dezakegu. Antropologiatik begiratuta, gizarte bakoitzak sexu ezberdintasunaz⁶ egiten duen azalpen kultural eta historikoa da generoa.

Genero teoriaren arabera, emakumeen eta gizonen jardunbide eta portaera askotarikoak ez dira jaiotzetik beretik ditugun molde biologikoak, baizik eta aldagarriak diren eraikitako gertaera sozialak. Itzal handiko 'Emakumeen salerosketa' artikuluan, Gayle Rubin-ek sexu/genero sistemaren kontzeptua erabili zuen eta honela definitu zuen: "hitzarmen hauen bidez, gizarteak sexualitate biologikoa giza-jardueraren produktu bihurtzen du"⁷. Gauzak horrela, sexua afera biologikoa da (gorputza/natura) eta generoa ikasitako-eraikitako afera (generoa/kultura).

⁵ 'Género', Morales, A. I.: 'Diccionario de Educación para el Desarrollo', Celorio, G. eta López de Munain, A. (koord.) Hegoa Argit. Bilbo

⁶ Murguialday, C, C.: l.o.

⁷ Gayle R., 'Reflexionando sobre el sexo: notas para una teoría radical de la sexualidad', Vance C. (bil.), 'Placer y peligro. Explorando la sexualidad femenina'. 1989, Revolución Argit. 183.orr.



Oinarri hauetan sakondu nahian, anatomia-ezberdintasunak ez dira funtsezkoak, kulturak nola ulertzen dituen anatomia-ezberdintasunak, haxe da funtsezkoa. Beraz, **anatomia** gure gorputzei esanahiak ematen dizkion (zakila eta faloa ez dira berdin)⁸ **eraikuntza politiko gisa** azaltzen dugu, ondorioz, **sexua** bera ere **eraikuntza soziala da**.

Gure gorputzetan berezko anatomia-ezberdintasun biologikoak daude, eta generoari jarraiki gorputzak ulertu eta esanahia ematen diegu. Zeren bidez azaltzen gara emakume ala gizon?, zertan oinarritzen gara gure burua horrela hautemateko? Emakume edota gizon izateak dituen esanahiez hautemate sozialik ez bagenu, nola erabakiko genituzke gure desirak eta gure identitatea?

Sexua eraikuntza sozial gisa ulertzen dugunez, benetakotzat daukaguna irauli eta egun nagusi den logika binarioa (‘bi sexu’ eta ‘bi genero’ en araberako analisia) zalantzan jarri behar dugu. **NAHIA** taldekideok genero **askotarikoak** (pluralean) aldarrikatzen ditugu, ez dira bi sexu eraikietara (gizon/emakume) eta bi genero ikasietara (emakumezko/gizonezko) mugatzen. Hortaz, bai gizon ala emakume izaerak bai gizonezko ala emakumezko kategoriak ez dira itxiak ezta aldaezinak ere.

Arauetatik kanpo dauden genero identitatearen adierazpenek – ezarritako arauak hausten dituztenek -, ‘transexualiteak’ eta ‘transgenerismoak’ kasu, erronka baten aurrean jartzen gaituzte: genero identitatea auzitan jartzen du (emakume/gizon bi kategoria bakan eta kontrajarri gisa).

Emakumeen kontrako diskriminazioa agerian utzi du generoak, eta baita **esleitutakoaz besteko generoaren itxurak, sentimenduak, desirak edo portaerak** dituztenen kontrako diskriminazioa ere, itxura, sentimendu, desira edo portaera ‘femenino’ en kasuan bereziki. Emakume/gizon arteko eta arauen barruan/kanpoan dauden

⁸ Coll-Planas, G.: l.o.

sexualitateen arteko (sexu bereko pertsonen artekoak, bikote-harremanetatik kanpokoak, etab.) botere-harremanak elikatzen ditu patriarkatuak.

Generoa eraikuntza sozial gisa azaldu dugunez, ikasitako **maskulinitate eta feminitateak** zalantzan jarri ditugu gero berreraikitzeke asmoz; sexua eraikuntza sozial gisa azaldu dugunez, **ikasitako sexu identitateak** ulertu eta **desegin** ditzakegu.

NAHIA taldekideok definizio kliniko eta patologizatzaileen kontra gaude. Jaiotakoan eta gizonezko ala emakumezko kanonaren arabera, gorputza izendatzen da, eta horren arabera esleitutako genero-izendapenak onartzen ez dituztenen alde gaude. Generoei dagokienez, definizioak anitzak dira, bai maila pertsonalean bai maila kolektiboan. Patriarkatuak eta heteronormak ezarritako botere-harremanen kontrako borroka gure moldeak barne hartu behar ditu, kontuan hartu behar ditu gizakiok generoarekiko ditugun izateko eta agertzeko molde ugariak.

Gizartean hedatua dagoen genero-sistema birpentsatzea proposatzen dizuegu NAHIA taldekook. Kontuan izan sentitzeko eta generoa bizitzeko aukera mugagabeak daudela: generoekin bat egin nahi ez duten pertsonak (transgeneroak, kasu), hormonatzen diren eta ebakuntzak izan dituzten gizon eta emakume transexualak, hormonatu eta operatu gabeko gizon eta emakume transexualak, emakume lesbianak, gizon eta emakume bisexualak, etab.

Laburbilduz, generoaren oraingo muga estu eta zurrunetatik haratago kokatzen gara, **sistema hau handitu eta aberatsago** egin nahi dugu, bertoko **aniztasuna eta konplexutasuna** aitortuta. Urte luzeetan aritu gara genero-sistemaren sexismoa zalantzan jartzen, eta sexu/genero binarismoa bera ere zalantzan jartzeko beharra ikusi dugu. Emakume, gizon ala hauetako bat bera ere izateko eta adierazteko modu anitzak pentsatzea badugu, gizakiaren izate konplexuarekin bat eginda.

Genero ikuspegia askoz zabalagoa da binarismoa baino eta bere barne hartzen du desiraren arloa. Teorialari askok mahai gainean jarri dute generoa ulertzeko era konplexuagoa, eta honi esker botere-harremanen irakurketa konplexua ere egin ahal dugu.

IDENTITATEA

Identitatearen bidez, gizabanakook **barne eraikuntza** osatzen dugu, denboran zehar mantentzen gara, aldaketak gorabehera. Eduardo Ruiz Vieytez-ek⁹ horrela azaltzen ditu identitateak: *“hainbat osagai komun dituen gizatalde baten partaide sentitzeko aukera benetakoa ala alegiazkoa eskaintzen dute”*. Gerard Coll-Planas-en¹⁰ arabera, *“identitateak posible egiten gaitu, gure buruarentzat eta besteentzat ulergarri egiten gaitu”*.

J. Weeks-en¹¹ arabera, gure gorputzekin, besteekin eta inguruarekin erlazionatzeko *“beharrezko fikzioak”* dira identitateak. Ez dute esentzia ‘naturala’ osatzen, komunitate batekin lotzen gaituen **eraikuntza soziala** baizik, eta **ezberdintasunak egiaztatuz** eraikitzen dira. Gerard Coll-Planas-ek identitateak ezinezko direla aipatzen du *“inkontzienteak eta bestearen begiradak mehatxatuta baitaude, berauen aintzatespena behar baitute bideragarri izateko”*.

Hortaz, identitateak ezinbestekoak dira gizartean bizitzeko, pertsonak **sailkatu eta estereotipatu** egiten dituzte, ordea. Identitateak testuinguruaren eta historiaren arabekoak dira, ez gara beraiekin jaio eta etengabe aldatzen ari dira. Cristina Gaizabalek, bada, identitate *“prekario”* izendatzen ditu. Eta Gerard Coll-Planas-ek Butler aipatu eta horrela dio: *“bideragarri egiten gaituzte eta aldi berean menderatzen gaituzte”*.

Patriarkatua eta heteronorma gure identitateak eraikitzeko prozesuan daude. Egitura-hierarkia hegemoniko eta baztertzaleak baldintzatzen gaitu, hainbat identitate bazter uzten dituen. Gu partaide sentitzea eta *besteez* dugun hautematea, gizartean aintzat hartuak eta zilegi izateak baldintzatzen du.

Identitateek **menderatzen** gaituzte, heteronorma ukatzen dutenek nahitaez identitate kolektibo ezagunak osatu behar baitituzte. Ondorioz, ezaugarri komunak dituen kolektibo baten partaide izan behar dugu, gure generoa edo jardun afektibo-sexualak zein diren. LGTTBI deitu ditugun kolektiboetako partaideek zer dute komunean? Haien

⁹ J. Ruiz Vieytez, E: ‘Juntos pero no revueltos. Sobre diversidad cultural, democracia y derechos humanos’. Fundación Ellacuría Argit. Eusko Jaurlaritza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Inmigrazioa eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritza. Gasteiz, 2011

¹⁰ Coll-Planas, G.: l.o.


¹¹ Weeks, J.: ‘Valores en una era de incertidumbre’, ‘Construyendo identidades, estudios desde el corazón de una pandemia’ Llamas, R. (bil.) S.XXI. Argit. Madril, 1996

gogo eta afektibotasun zehatzetatik haratago dauden zenbait 'ezaugarri' esleitzen zaizkie.

Gutxitutako identitateek kolektiboaren behar handia dute. Identitatea guztiok daukagu, baina harreman afektiboak, sexualitatea edota genero-rolak arauen *bazterretan* bizi dituztenek identitate kolektiboa behar dute, aintzat hartzen dituen, indartzen dituen eta beraien eskubideak aldarrikatzeko aukera eskaintzen diena gizarteko gehienen aurrean. Identitateak **aldatzeko tresna** indibidual zein kolektiboak dira, sistemaren partaide egiten gaituzte eta sisteman eragiteko parada ematen digute.

Identitateak aintzatetsi eta bideragarri egiteko, *bestearen begiradaren* garrantzia azpimarratzen du Gerard Coll-Planas-ek. Demagun pertsona heterosexualak armairutik atera behar direla, ezkontzeko ala seme-alabak izateko gogoia defendatu behar dutela, monogamiaren alde egin behar dutela. Katalogoetan arauen barruan dauden sexualitateek ez daukate maila kolektiboan hauturik adostu/azaldu beharrik, egokitzen hartzen dira berez.

Gay, lesbiana eta transen artean iritzi ezberdinak daude identitate kolektiboaren gainean. Hainbatek uste dute bazterkeria sortzen dutela eta gutxitutako taldeen onarpen soziala zailtzen dutela. Beste batzuek taldekatzeko beharrik eusten diote, zapalkuntzari aurre egin ahal izateko tresna gisa. Zenbait identitateen kontra daude arau-emaile ere izan daitezkeelako. **NAHIA** taldekideontzat identitate kolektiboak balizko transformatzaile izan badira, alta, gure askatasun pertsonala, banakotasuna mugatzen dute eta hori dela eta, ni-aren eta taldearen arteko tirabira sortzen da.



Gutxitutako sexualitate eta genero-identitateetatik haratago eraman nahi dugu eztabaida **NAHIA**ko kideok. Modu kontzientean ala inkontzientean denok egiten ditugu sexu- eta identitate-hautuak, beraz, eztabaida politikoa horretan oinarritu behar da gure aburuz: hautu hauek sortzen dituzten bazterkeria-egoerak zilegi dira ala ez? Horregatik **identitate askotarikoen** babesa eta zilegitzea behar-beharrezkoa da, pertsonak kolektibo anitzetan parte hartu ahal izateko, beraien gogo afektibo-sexualak edo genero-identitateak gorabehera.

Esan bezala, pertsonak testuinguru anitzetan egiten dituzten eraikuntza sozialak dira identitateak. Hortaz, genero- eta sexu-identitatearen parte da **hautua, aukera** (generoarekiko sentimenduak, norenganako desira, etab.). Arauetatik kanpoko identitateek, sexuak aurkari gisa azaltzea bera zalantzan jartzen dute, bereziki transgeneroek eta transexualek. Eta historikoki aurkakotzat edo osagarritzat hartu diren generoen osagaiak hartzea eta elkartzea ahalbidetzen dute. Homosexualitateak, berriz, identitatea eta desira kontrako gisa azaltzea zalantzan jartzen du. Erreferentzia-eredu den *sexu berdinare*n ideia gainditzeko gakoak eskaintzen dizkigu (emakumearekin identifikatzen naiz eta gizona desiratzen dut eta alderantziz)¹². Pertsona batekin identifikatu eta aldi berean pertsona bera desiratu dezakegu.


Eraikitzen ditugun identitateak **gurutzatze askotarikoen emaitza** dira gure aburuz. Emakume, gizon ala bi kategoria hauetatik aparteko beste modu batera identifikatzeko aukera daukagu, baita desira eta afektuari buruzko sexu hautu anitzak egitekoa ere. Dena den, bi sexu eta bi generoen sistematik gure identitate-aukerak askatzeko erronka honetan, kanpoko osagaiak berebiziko garrantzia dute, inkontzienteak baitira eta gure eskuratzeko gaitasuna mugatzen baitute maiz. Gureganatze inkontzienteak eta presio sozialak baldintzatuak daude gure hautuak¹³. Gure amaren sabeletik beretik esleitutako generoa dugu, herentzia historikoaz eta eskuratzeko manerez blai jaio gara. Hau horrela izanik ere, gure erabakiak ez daude mugatuta, gure identitatea osatzeko eremu askeagoa aldarrikatzeko aukera badugu.

SEXUALITATEA

Gayle Rubin-en esanetan, *“jateko goseak ez du sukaldeko konplexutasunak ulertzeko zantzurik ematen”*. Honen karira, sexualitatea horrela azaltzen digu: *“gizartean eta historian eratzten da eta ez dago biologiak mugatua”*. Sexualitateaz ari garela, **desiraz eta plazer erotikoaz** ari gara, eta gorputzean txertatuta dauden arren, ez daude gorputzak mugatuak.

¹² Coll- Planas, G.: l.o.

¹³ Coll- Planas, G.: l.o.



Generoarekin gertatu bezala, sexualitatearen ideia esentzialistak badirau gaur egun. *“Indar natural, iraunkor, aldaezin, asozial eta transhistoriko”* gisa ulertzen da sexualitatea. Eremu akademikoak bere aldetik, psikiatrak, psikologoak eta medikuak tarteko, esentzialismo sexualaren irizpidea elikatu du¹⁴.

Historiak mugatutako jardun sozialen¹⁵ bidez osatzen da sexualitatea, biologia eta kulturaren arteko dialektikaren emaitza da. Horrela ulertuta, sexualitatea maila politikoan jorratu ahal izango dugu: sortzen dituen **botere-harremanak** argitu eta **oinarrizko giza eskubidea** dela aldarrikatu.

Aurreko azalpenetan aipatu bezala, esparru arau-emaileak baldintzatua dago sexualitatea, eta **patriarkatuaz eta heterosexismoaz** elikatzen da. Historian zehar ezkontzak, ugaltzeak eta maitasunak sexua zuritu dute, eta berauek zilegi denaz dugun ideia baldintzatzen dute. Gayle Rubin-ek dioenaren arabera, *“sexu portaera guztiak txartzat jotzen ditugu berez, berauek onik ateratzeko argudio zehatzik ez badaukagu behintzat”*.

Adibide legez, sexualitate ‘ona’ eta ‘txarra’ren arteko bidean, honakoak ditugu: maitasuna helburu duen sexua edo ezkontza, noizbehinkako sexu harremanak sexu berekoekin, bikote-harremanetik kanpokoak, eta, txarrean ‘txarrenak’, trabestismoa, fetitxismoa eta abarrak.

Hierarkia hauek norbanakoon bizitzak baldintzatzen dituzte, eta **botere-harremanak** sortzen dituzte, nola helduen arteko zenbait sexu jardunak legez zigortuak eta jazarriak diren testuingurutan, hala ‘gure’ mendebaldeko demokrazietan. Gayle Rubin-ek laburbiltzen digu: *“hierarkia honetako mailarik goreneko portaera duten norbanakoek hainbat sari jasotzen dituzte: buru osasunaren aintzatespena, errespetua,*

¹⁴ Rubin, G.: l.o.

¹⁵ Foucault, M., M.: ‘Historia de la sexualidad. Voluntad de saber. Vol I’. SXXI Argit. Buenos Aires, 1998

mugikortasun fisiko eta soziala, euskarri instituzionala eta irabazi materialak". 'Beherago' daudenek bazterkeria jasaten dute: gutxiespen soziala – emakume *nasaiei* botatako irainak, kasu – eta giza eskubideen urratze larriak – erailketa, kartzela edota sodomiapeko heriotza-zigorra, kasu -.

Sexu ideologiaren sortzaileek badute zeresanik/zereginik gure sexualitateaz eratzten zaigun irudiaz. Elizak, familiak, komunikabideek eta psikiatriak¹⁶ berebiziko ardura dute sexualitate zilegizkoaz eta osasuntsuaz ditugun ideien gainean. Hortaz gain, Hiritartasun Globalerako Hezkuntzan eta Nazioarteko Garapenean jorratu ez dugun eremua hartu dute. Ugaltze-eskubideek baztertu egin dituzte sexu eskubideak, plazerari eta desirari buruzko eztabaida politikoa bera ere bazter utzi dugu azpijoko honen bidez. Gayle Rubin-ek zera proposatzen digu: *"Progresistak direnek haien kezkek aztertu behar dituzte. Sexu heziketan egunean jarri eta sexu hierarkiaren funtzionamenduaz jabetu. Bada garaia bizi erotikoaren garrantzi politikoa onartzeko"*.

Giza eskubideen alorrean sexualitatea ere jorratzea aldarrikatzen dugu **NAHIA** taldekook, berezko lanketaren bidez, ugaltzeko eskubideetatik haratago eta sexualitate eredugarri bakarraren ideia zalantzan jarrita. Eta **sexu etika anitzetik** abiatuta egin nahi dugu. Berriro ere hona ekartzen ditugu etikari buruzko Gayle Rubin-en hitzak: *"maitasun-harremanean partaide direnek elkar hartzeko modua, elkarrekiko begirunea, bortxarik agertzea/eza eta jasotako plazeraren kantitate eta kalitatearen arabera baloratu beharko lituzke sexu ekintzak moralitate demokratiko batek. Sexu ekintzetan heteroak ala homoak izan, biluzik ala jantzita egon, bikotean ala hirukotean aritu, eta abarrak kezka etikorik gabeak izan beharko lirateke"*.

Gayle-k aipatu helburuak laudagarriak dira Jeffrey Weeks-entzat¹⁷, baina hautu askea murrizten duten mugen kontzientzia izateak etengabe oztopatzen du helburuok ezagutzea, haren esanetan. Weeks-ekin bat egiten dugu: *"mugak eta aukerak, bide arriskutsuak eta helburu positiboak ezagutu behar dira sexu 'hautuak' egiteko"*. Egile honek zera argitzen digu: *"sexualitateak berak berez duenaren arabera ez ditugu hautuak egiten, hartzen ditugun balio eta helburuen arabera baizik. Sexu demokraziarako beharrezkoa da demokratizazio prozesu zabalagoa, norbanakoon ahalmena eta garapena oztopatzen dituzten hesiak botako dituen: esplotazio ekonomikoa eta klaseen arteko banaketa, arrazen zapalkuntza eta genero ezberdinketak, autoritarismo moral eta hezkuntza alorreko desabantailak, pobrezia eta segurtasun eza, hesi hauek guztiak bota beharko lirateke."*

¹⁶ Rubin, G.: l.o.

¹⁷ Weeks, J, 'Sexualidad'. Paidós Argit. Bartzelona 1998, 118-121 orr.


3.2. GENERO ETA SEXU ANIZTASUN IKUSPEGIA

Aurkeztu dizuegun dokumentu honetan **ikuspegi** hitza azpimarratu nahi dugu. Gure aburuz, sexu aniztasunaz eta genero identitateaz jorratzen ari garen zioei zentzu osoa ematen die kontzeptu honek.

Gure hausnarketak gogoan hartuta, gizarteetan elkarrekintzan ari diren sexualitate eta genero identitateak ezagutu eta ulertzeko analisi-tresna erabilgarria da genero eta sexu aniztasun ikuspegia. Horretaz gain, **errealitate hauen aldaketarako eta transformaziorako proposamen politikoa** ere bada.

NAHIAkoontzat eta ikuspuntu politiko batetik begiratuta, honakoak hartu behar ditugu kontuan:

- Sexu eta genero-identitateen aniztasuna gure aberastasunen parte garrantzitsua badela onartu behar dugu, gizarte guztietan baitago, usadioak, tradizioak edota kultur ohiturak gorabehera.
- Sexu hierarkia kontuan hartu behar dugu, eta horren arabera zenbat sexualitate hobek, legekoagoak, moralagoak edo osasuntsuagoak direla eta beraz, onura sozial, legal eta ekonomiko gehiago jasotzen dituztela.



- Generoen artean ematen diren botere-harremanak ezagutu behar ditugu, oro har hauen bidez menpeko estatusa betetzen baitute *emakume* esleipena jaso dutenek alor sozial guztietan.
- Jaiotakoan esleitutakoari uko egin eta nahi dugun generoaren eredura bizitzeko aukera gehiago izatea aldarrikatu behar dugu.
- Sexualitateen eta generoen inguruko botere-harremanak maila sozialean eta historikoan eraiki eta egitura sozial osoan ageri dira. Beste harreman motekin ere uztartu egiten dira, klase, etnia, adin eta erlijioekin, kasu.
- Aipatu aniztasuna babesteko eta bultzatzeko konpromisoa hartu behar dugu, gure egitasmoak edozein direla.

Arestian zerrendatutako konpromisook, lantzen ari garen genero eta sexu aniztasunaren ikuspegiari indarra ematen diote.

Aipatu bezala, sexualitatea oinarrizko alderdia dela darabilgu pertsonen garapen osorako eta ongizate indibidual eta kolektiborako. Horrela jasotzen da Sexologiari buruzko Munduko 13. Biltzarrean onartu zen Sexu-Eskubideen Gutunean¹⁸ (Valentzia, 1997). Sexu-eskubideak, gizakiari atxikitzen zaizkion askatasunean, duintasunean eta berdintasunean oinarritutako giza eskubide unibertsalak dira. Sexu-eskubideak gizarte guztiek beren baliabide guztiekin onartu, sustatu, errespetatu eta defendatu behar dituzte¹⁹.

Era berean, uste dugu sexu-eskubideak ezin ditugula bigarren mailako eskubidetzat hartu. 1948ko GGEEen Adierazpen Unibertsalean ezarri zen aurrerabidearen parte dira. Eta jabetu gara: *“urteak igaro ahala, eta gizarte-mugimenduen aldarrikapenei esker, eskubideak **konplexuagoak, anitzagoak** direla, eta ikusezintasunean eta bazterkeria sozialean egotera behartuak izan direnengana **zabaldu direla**”²⁰.*

¹⁸ Sexu-eskubideak hamaika dira: 1) askatasun sexu-erako eskubidea; 2) gorputzaren autonomia eta segurtasun sexu-erako eskubidea; 3) pribatutasun sexu-erako eskubidea; 4) berdintasun sexu-erako eskubidea; 5) plazer sexu-erako eskubidea; 6) emoziozko sexu-adierazpenerako eskubidea; 7) sexu-elkartze aserako eskubidea; 8) ugalkortasunari buruzko erabakiak libre eta arduratsu hartzeko eskubidea; 9) ezagutza zientifikoan oinarritutako informazioa jasotzeko eskubidea; 10) sexu-hezkuntza integralerako eskubidea; 11) sexu-osasunaren arretarako eskubidea.

¹⁹ Mujika, I.: ‘Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi’, ‘P. Francisco de Vitoria GGEE Bilduma’, ARARTEKO Argit. Gasteiz, 2007

²⁰ Mujika, I. eta Villar, A.: ‘Sexu aniztasuna eta GGEE, Gayak, Lesbianak, Transexualak eta Sexu-Eskubideak’: ALDARTE Argit. Bilbo, 2008

<http://www.aldarte.org/comun/imagenes/documentos/DDHHeusk.pdf>

Sexualitatea **plazer iturburu** gisa jorratu nahi dugu, arriskuen aurrean gozamenari lekua egiten dion diskurtsoa lantzeko asmoa dugu. Horrelako jarrera hartu arren, ez dugu ahaztuko plazeraren eta arriskuaren arteko tirabira, baina errepresioa, zapalkuntza eta arriskua ez ezik, sexualitatea plazera, miatzea eta ekintza ere bada.

Sexualitatea balizko arriskuen arabera ulertzeko joera sozialak benetan kezkatzen gaitu, gehienetan berekin dakartzan plazerak baliogabetzen dituelako. Plazera norbanakoen eta taldeen jabekuntzarako bidea dela sumatzen dugu, norbanakoen eta taldeen ekintzarako eta sexu hauturako aukerak handitzen dituela.

Plazera *“politikarako eta erresistentziarako tresna”*²¹ gisa erabiltzea proposatzen dugu, bortxa eta gehiegikeriaren aurka egitea, aniztasunarekiko beldurra gainditzea, plazera



aintzat hartzea eta sexu desirak arakatzea, egunerokotasuneko plazer-gabeziari aurre hartzea, gure gorputzen aukerei buruzko ezjakintasunari gaina hartzea. Eta askoz ere gehiago.

Gayle Rubin²² egileak dioenez, sexualitatea eta generoa sistema bereziak dira, eta oso lotuak egon arren, bakoitzak funtzionatzeko mekanismo sozial

berezkoak ditu. Analisisirako metodo honen bidez, jardun sozialaren alor desberdin biak zuzenago erakutsi daitezke, Rubin-en esanetan. Azaltzen saiatzen ari garen genero eta sexu aniztasun ikuspegiari dagokionez, ikuspuntu honi jarraituko diogu eta sexualitatea berezko izaera eta funtzionamendua duen kategoria gisa ulertuko dugu, inondik inora generoaren hondar-kategoria edo azpikategoria gisa.

²¹ ²¹“Cuerpos placenteros. El empoderamiento de las mujeres a través del placer sexual” “Cuerpos”, La Madeja Aldizkaria

http://www.localcambalache.org/libros/comentarios_libros/la_madeja_2.htm

²² Rubin, G, R.: I.o.

Sexualitatea eta generoa bereizi arren, gustu sexuala eta genero-identitatearen artean lotura sendoa²³ dagoela argi dakusagu. Ezin gara sexualitateaz mintzatu generoa bazter utzita. Jardun sozialeko bi alorrak barneko hartu-eman estuan eratzen direla pentsatzen dugu. Zapalkuntza sozialaren eragile ezberdin gisa jorratuko ditugu sexualitatea eta generoa, baina elkarren arteko lotura sendoak dituztela.

Sexualitate eta generoaren arteko elkarrekintzari buruzko hausnarketaz gain, ezberdintasuna eta bereizkeria sortzen dituzten beste eragile batzuekin nola lotzen diren ere buruan dugu: etnia, adin, erlijio eta klase sozialarekin, kasu. Ildo honi jarraiki, **zera uste dugu: Kooperazio eta Hiritartasun Globalerako Hezkuntza politikak egiteko, genero eta sexu aniztasun ikuspegia txertatu behar da**, lehenago beste hainbat bidegabekeriaren sortzaile diren aldagaiak analisisian txertatu diren bezala.

Gure egitasmoetan elkarguneen analisia egingo genuke: pertsonak jasaten dituzten kalterako/ahultzeko baldintzek ez dute zapalkuntzaren batukari hutsa osatuko, aritmetika osoa baizik.

Elkarguneen ikuspegiaren arabera, zapalkuntza-ardatzak gurutzatzen dira, *“(...) zapalkuntza-ildoen elkarrekintza eta elkarrekiko menpekotasuna nabarmentzen ditu elkarguneen ikuspegiak. Pertsonak aldi berean menperatzaile eta menperatu gisa jokatzeko dute ikuspegi konplexu honen karira, horren ondorioz, ikuspegi hierarkikoa saihestu egiten da, alor bakar bat ere besteen aurretik jarri gabe.”*²⁴ Zapalkuntzak batu egiten diren logika gainditzen dugu (beti esaten baita: lesbianek diskriminazio bikoitza pairatzen dute, generoa dela eta sexu orientazioa dela).

Bereizkeria sozialek eta sortzen dituzten diskriminazioek badute neurri sexuala, eta sexuaren bidez gure gorputzen eta prozesuen gainean, gure desiren eta garatzeko aukeren gainean hautatzeko aukerak ditugu. Hori dela eta, talde batzuek onura ekonomiko, politiko, sozial, familiar, komunitario edota lege mailakoak jasotzen dituzte, beste hainbat talderen kaltetan. Onura hauek ematen dira pertsonen zenbait ahalmen ukatzen zaizkienean, hala nola:

- Lagun izan nahi dugun pertsona hautatzea, familia-ohiturak edo araudi heterosexistak direla medio

²³ Coll-Planas-ek proposatzen duenarekin bat egiten dugu: *“Genero eta sexualitatearen artean bereizmen analitiko egin behar dugu, baina homosexualitatea eta transexualitatea ardatz analitiko bi hauen giltzarri direla argi utzita.”* Coll-Planas, G.: l.o.

²⁴ Raquel (Lucas) Platero (argit.), Bellaterra Argit.artzelona. 2012. Gerard Coll Planas ‘El circo de los horrores’, ‘Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada’

- 'Izan' edo 'bizi' nahi dugun generoa hautatzea, jaiotakoan esleitu egiten delako kanpoko irizpideei jarraiki eta norbere gorputzaz sentitzen duena kontuan hartu gabe
- Aita edo ama aritzea hautatzea
- Nahi dugun pertsonarekin nola eta noiz egon hautatzea
- Norbere gorputzean egin nahi dituen aldaketak hautatzea
- Seme-alabak edukitzea, zenbat edo noiz izan hautatzea
- Sexu jardunak eta plazererako bideak hautatzea
- Eta abar.

Femenino/Maskulino, emakume/gizon bi kategoria kontrajarri, bi sexu eta bi genero besterik ez dagoela ezartzen duen logika binario osoa zalantzen jartzen dugu ikuspegi honen argitan. Logika binarioaren determinismo zorrotza eta haren eraginpean eraikitako identitate zurrinak zalantzan jartzen ditugu: gizon edo emakume eta heterosexualak gara, ondorioz, sexuak, generoak eta heterosexualitateak, hirurek kate sinbolikoa eratzen dute, gure sexu garapenaren helburu gisa²⁵.

Emakumezko edo gizonetzko diren, eta emakume edo gizon egingo gaituzten sexu-organoekin jaio garela ezarri duen logika binarioa zalantzan jartzen dugu. Horrez gain, logika binarioari jarraiki, emakumeek gizonenganako erakarpena sentitzen dute, eta alderantziz.


Generotik askeak diren gorputzetan sinesten dugu. *"Sexu/generoaren binarismoa zalantzan jarriz gero, gure bizitza eta gizarteko oinarri-oinarrizko eremu, arau eta instituzio askori buruzko hitzarmen sozial agerikoak eta ezkutukoak/inkontzientek berrikusi behar ditugu, hauen guztien koherentzia/funts praktikoa eta moralak berraztertuz: sexu/genero bakoitzari dagozkion koloreak eta janzkerak; eskolan edo hautes-mahaian aukeratu beharreko ilara; erabili beharreko komun publikoa; gure sexu orientazioa, binarismoa-sexu orientazioa sistematik kanpo bagaude; ebakuntzak eta identitate-aldaketak egitea balioztatzea, pare binarioan lerrokatzen ez diren gorputz eta burua daukaten pertsonen kasuan, eta abar luzea. Aukera mugagabeen*

²⁵ Garaizabal, C.: 'La transgresión del género. Transexualidades, un reto apasionante', 'Transexualidad, transgenerismo y cultura', Nieto, J. A. (bil.), Talasa Argit. Madril 1998

*'continuum' batean nork bere sexu-estatusa garatu ahal izateko baldintza sozial eta juridikoak ezarri beharko lirateke, aipatutakoa berrikuste aldera.*²⁶

Sexu/genero binarismoa zalantzan jarrita, 'gizon-izateko' eta 'emakume-izateko' adierazpenen eta sexu-ikusgaitasun molde anitzak gogoan izan ditzakegu, izan ere, gizakiaren izate konplexuarekin bat datorren hausnarketa. Gizon/emakume eta emakumezko/gizonezko etiketek ezartzen dituzten arauak egokiak diren zalantzan jartzen dugu. *"(...) genero arau-emaileak bereizten gaitu, gure subjektibotasuna urratzen du, gure gorputzak ar/eme, gure esleipena maskulino/femenino, gure desira heterosexual/homosexual gisa, eta abarrak banatzen ditu."*²⁷

Emakume eta gizon izateko bestelako balizko modu beharrezkoak egon badaude.



Gizon edo emakume, homosexual edo heterosexual kategoriak bidenabar erabiltzean kontuan hartzen ditugun irizpideak aldatzera behartuta gaude gure lan-egitasmoetan. Molde ez baztertzaila eta atseginak ezinbestekoak zaizkigu pertsonak sailkatzeko, onura sozial eta legalak gozatu ditzaten eta ez ditzagun bazter utzi.

Bi sexu/bi genero paradigmen bidez ezin dira guztiz azaldu emakume eta gizonen errealitate konplexuak eta haien

arteko harremanak. Paradigma hau genero teoria askoren oinarrian dago, sexuaren ikuspegi esentzialista eta naturalizatuari eutsi baitiote. *"Sexu/genero askotarikoa dutenen auziak agenda feministan jorratzen hasteko, honakoa kontuan hartu behar dugu: sexua ez dago berez generoa kulturalki osatu baino lehenago, alderantziz, sexua eta generoa, biak ala biak, emaitza kulturalak dira"*²⁸. Gorputza edota kanpoko sexu-organoak ez dira elementu nahikoak *"emakumeaz eta gizonaz ezagutzen dugun horretara"*²⁹ iristeko.

²⁶ Saldivia, L.: 'Reexaminado la Construcción Binaria de la Sexualidad'

http://www.law.yale.edu/documents/pdf/Student_Organizations/SELA09_Saldivia_Sp_PV.pdf

²⁷ Coll-Planas, G.: l.o.

²⁸ Saldivia, L.: l.o.

²⁹ Saldivia, L.: l.o.


Hausnarketa hauetaz gain, sinetsita gaude zapalkuntza patriarkala eta androzentrismoaren kontrako borrokak iraun behar duela. *“Generoak, besteak beste, pertsonen arteko hierarkiak ezartzen ditu, eta pertsonak bertakotu ala baztertu egiten ditu, haien biziak babestu ala heriotzara kondenatzen ditu, subjektu arduratsu ala pertsona ez fidagarritzat (garrantzirik gabeko iritzidun, balio gutxiko bizidun) hartzen ditu.”*³⁰ Coll-Planas-ekin bat egiten dugu.

Jakin badakigu aparteko erronka dugula aurrean: sexu/genero logika binarioaren kritika batetik, eta emakume, lesbiana, gay eta trans (binarismo heteronormatiboak ezarritako kanonak betetzen ez dituen edozein gizaki, oro har), hauen guztien kontrako bazterkeriak ikustarazteko beharra bestetik, biak ala biak uztartu behar ditugu jardunbidean.

Esparru teorikoa behar dugu, urteetako jardunean eta diskurtsoan hain lagungarri izan zaigunarekin hautsi gabe, gaur egungo sexuen eta generoen ikuspuntua gaindituko duena; zapalkuntza eta bereizkeria sistema ugarien arteko loturak ulertzeko aukera eskainiko diguna –menperatzeko eta baztertzeko berariazko eiteak sortzen baitituzte-; emakumeek eta gizonek osatutako unibertso anitza ikustarazten lagunduko diguna.

Egiturazko bazterkerien eta bazterkeria historikoen kontrako borroka-eremu batean, pentsamolde binarioa desegituratuko duen begirada eman liteke. Proposamenak eta aliantzak egiteko aukera gehiago eta sortzaileagoak irudikatzeko, sexu/generoen gaineko begirada berriak behar ditugu. Eta proposamen hauetan pertsona askotarikoak sartu ahal izango dira, maila pertsonalean eta kolektiboan burujabe izango diren ereduak sortzeko nahia eta gogoia izango dutenak. **NAHIA** taldea osatzen dugunok honetaz ziur gaude.

³⁰ Coll-Planas, G.: l.o.



4

Genero

**eta sexu aniztasun ikuspegia
gure jardunbidean**

Urteak dira generoa eta hain zuzen ere, emakumeen egoera kontu erabakiorrak direla GK eta HGH lan-arloetan.

GGKEak, Kooperaziorako Agentzia Publikoak eta Erakunde Aldeaniztunak hausnarketan eta programak eta egitasmoak abian jartzeko hamaika ahaleginetan aritu dira Genero ikuspegia baliatuta. Ahalegin hauen erakusle garrantzitsua dugu kooperazioaren alorra, beraz, aurrerapausoak aitortu behar ditugu, aurrerapauso gehiago eta eragingarriagoen gabeziak batzuetan etsipena eragiten badigu ere.

Feminismoaren eta genero-ikerketen ekarpenei esker, Generoa Garapenean (GG) estrategia bezalako proposamenak baditugu, GK politiketan aurrerapen handia ekarri duena. Honi esker gizon-emakumeen arteko harremanak sakonki aztertu ahal izan dira eta ekintza-proposamenak egiteko baliatu da.

HGHaz ezin dugu gauza bera esan, zenbait gai³¹ txertatu diren arren, Kooperazioaren atzetik baitoa.

Aurrera eginagatik ere, harrigarria da nola gauzatu diren generoarekin lotutako kontuak hainbat politika zehatzetan, Milurtekoaren Garapenerako Helburuetan³² (MGH), kasu. MGHetan emakumea, batik bat ugalketa-alderdiekin uztartzen da. Ez dira kontuan hartzen ez genero ikuspegia ez jabekuntza-prozesua eta desiratzeko eta gozatzeko aukera aipatu ere ez da egiten.

4.1. GARAPENERAKO KOOPERAZIOA ETA HIRITARTASUN GLOBALERAKO HEZKUNTZA, GENERO ETA SEXU ANIZTASUN IKUSPEGIA TXERTATZEKO BALIZKO EREMUAK

Feminismotik eta genero teoritik ez ezik, bestelako alor osagarrietatik ere ekarpen baliagarriak egin dira HGHean eta GKan. Sexu aniztasun eta genero-identitateei buruzko hausnarketak plazaratzen ari dira alor desberdinetatik.

³¹ Antolín, L.: 'La mitad invisible. Género en la Educación para el Desarrollo'. ACSUR-Las Segovias Argit. Madril, 2003

³² <http://www.un.org/spanish/millenniumgoals/>



Sexualitatea ugalketaz eta emakumeen osasunaz aparteko auzi legez hartzen badugu, nola sexu aniztasuna hala genero aniztasuna ere gogoan baditugu... lanerako aukera berriak zabaltzen zaizkigu. Pertsona guztiei dagozkie aukera berriok, eta bereziki, heterosexualitate nagusiaren periferian kokatzen direnei edo LGTTBI hautua egin eta bizi duten pertsoneri.

Genero eta sexu aniztasun ikuspegia giza eskubideetan oinarritzen dela gogoan izan behar dugu, sexu aniztasuna eta genero-identitatea hautatu eta duintasunez bizitzeko guztion aukera berdinarak dira muina, Iparraldekoak zein Hegoaldekoak, heterosexualak, lesbianak, gayak, bisexualak, transgeneroak, transexualak edo intersexualak izan. Funtsezkoa da sexuak eta generoak anitzak direla onartzea gure esku-hartze eremuan kontuan izan ditzagun.

Hegoaldeko herriekin eta Iparraldean bizi diren Hegoaldeko pertsonekin egiten dugun lanaren bidez, jakin badakigu gizabanako ugarik bazterkeria, jazarpena, tortura eta hilketa ere pairatzen dituztela, eta zergatik eta sexu hautuak publikoki agertzeagatik, arautik kanpoko desirak modu askean bizitzen saiatzeagatik.

Gero eta jende gehiagok jatorrizko herrialdeetatik ihes egin behar du, nola migratzaile hala errefuxiatu gisa. Arau barruko sexu eta generoen 'biktimen' artean, ahulenei arreta berezia zor diegu, historian zehar jazarriak izan diren LGTTBI kolektiboaren parte diren 'biktima' makalei. Genero eta sexu aniztasun ikuspegiak kolektibo hauetan du eragin berezia, bai eta pertsona guztiongan ere, eta nola edo hala guztiok engaiatzen gaitu.

Nazioarteko Garapenerako Agentzia Suediarrak (NGAS)³³ auzi honi buruzko aurrekaria eskaintzen digu: LGBT kasuan bakarrik oinarritzen den arren, GK eta HGH arloetan eta etorkinen eta errefuxiatuen giza eskubideak babesteko lanean genero eta sexu aniztasun ikuspegiak duen garrantzia azpimarratu eta kontuan hartu beharreko zenbait ekarpen egiten ditu.

Gure aburuz, akuiluarena egin du aurrekari honek, gure lanaren xede diren pertsonengana eta komunitateetara hurbiltzeko manera desberdinak eta bestelako

³³ <http://www.sida.se/Documents/Import/pdf/El-trabajo-de-Asdi-sobre-temas-de-Lesbianas-Gays-Bisexuales-y-personas-Transg233nero-en-la-cooperaci243n-al-desarrollo.pdf>

aukerak eskaintzen baitizkigu. Esate baterako, galdera berriak baliatuta eta bultzatu beharreko eragile/bidaide berrien bidez hurbiltzeko aukera, betiere ingurune kultural eta sozial ezberdinekiko errespetutik abiatuta eta mendebaldeko irizpide etnozentriztaz inposatu gabe.

Gogorarazi nahi dizuegu feminismoaren eta generoaren lanaren bitartez egindako ekarpenak ez ditugula bazter utziko, kontrara, ikuspegi honekin lana osatu egiten dugu. Arestiko ataletan jorratutako kontzeptu-esparrua kontuan hartzen duten ikusmolde egiazko eta bateratzaile konplexuagoekin aberastu egiten da. Izan ere eta gure ikuspuntutik, sexuari eta generoari buruzko esparru teoriko zabalagoak lantzea dugu faltan, gizon-emakume harreman binario ezarrietatik haratago joateko bide emango digutenak. Izateko balizko modu ezberdinak irudikatu eta desiratzeko eta gozatzeko molde berriak aukeratu ahal izango genituzke esparru teoriko zabalagoak baliatuta. Eta hau guztia beren-beregi egingo genuke, gure sexu- eta genero-hautuak berreraikitze eta berregiteko gaitasuna erabilita.

4.2. ZIUR AL GAUDE, ALA GALDERAK SOBERA DITUGU?

Egia esan, ziurtasunak baino galdera gehiago ditugu zuekin elkarbanatzeko. Beti GK eta HGH lanetik kanpo geratzen diren pertsonen eta Hegoaldeko elkarten esperientzia zuzenak eta zeharkakoak ezagutzen ditugu, nagusi den eredu heterosexualetik aparte daudelako. Bai eta gure artean bizi diren Hegoaldeko etorkin eta errefuxiatuen esperientziak ere.

Eredu neoliberal nagusiaren aurrean erresistentziak sortzen dituzten GK eta HGH nahi ditugu, ekintza eta proposamen alternatiboak irudikatu eta aurrera eramateko gai diren GK eta HGH. Hori dela eta, genero eta sexu aniztasun ikuspegiak aukera berriak eskaintzen dizkigu, ekintzarako bide berriak, lanean aritzeko pertsona berriak.

Mahai gainean jarri dugunaren antzekorik proposatu duten aski eredurik ez daukagu aurretik. Bidea ezarri duten hainbat esperientzia egon badaude, baina zertxobait haratago joan nahi dugu, 'balizko berriak' arakatu nahi ditugu. Horregatik hain zuzen ere, zalantza eta galdera ugari ditugu, norbanakoekin eta erakundeekin luze-zabal eztabaidatu nahiko genituzkeenak, elkarri erantzunak eman diezazkiogun. Ariketa honen bitartez, GKn eta HGHn eta etorkin eta errefuxiatuek dituzten giza eskubideen babes eta sustapen arloetan genero eta sexu aniztasun ikuspegia osatzen joango gara.

Lehenengo galdera gure elkarteei buruzkoa da: gure elkartea eratzen dugunon harremanetan nola lantzen dugu aipatu ikuspegia?

Gure ustez, genero eta sexu aniztasun ikuspegia ez da Kooperazio eta HGH arloetan azaleratu, azken finean egundoko erresistentziak baitaude gai hauen inguruan lanean aritzeko. Hala eta guztiz ere, aipatu ikuspegiak erronka pertsonal eta kolektibo ezberdinak eragiten ditu, bai Iparraldeko bai Hegoaldeko erakundeetan. Bada garaia, akaso, oraingoz azaldu gabeko eztabaidari ekin eta hainbat galderei erantzuna ematen hasteko.

Genero eta sexu aniztasun ikuspegiak ekintza zehatzak eta ekintza funtsezkoak proposatzen ditu, erakundeetako kulturarekin eta denok gai honen inguruan ditugun aurreiritzi positibo eta negatiboekin lotutako kontu sakonagoak, hala nola.

Seguruenik, ez dakigu gure taldekideek gai honetaz gogoan dutena; seguruenik,



gutxitan irudikatu dugu gure erakundea genero eta sexu aniztasunaren ikuspegiaren argipean –zer da horrelako erakundea, zertan aldatzen da bere jardunbidea, ekintzak, lana, egitura,...- Hurrengo galderak baliagarriak, ‘bideragarriak’ dira akaso, eta gure erakundea birpentsatzeko eta jardunerako bestelako moduak irudikatzeko bidea eskainiko digute, genero eta sexu aniztasun ikuspegia txertatuta.

Genero eta sexu aniztasun ikuspegia jorratu al dugu gure erakundeetan? Gure aurreiritzi pertsonal eta kolektiboak ezagutzen al ditugu?

Genero eta sexu aniztasun ikuspegia gure erakundearen barruan bizi eta erakutsi daiteke, ala eremu pribatuko kontua da?

Gure erakundearen edozein partaidek bere izaera anitza erakutsi dezake modu askean? Erakundearen aldetik bultzatzen al da?

Erakunde barruan dagoen genero eta sexu aniztasun ikuspegia publikoki agertzeak sortu ditzakeen ondorio positibo eta negatiboak eztabaidatu al ditugu?

Hizkera barneratzailea erabiltzen al dugu? Aniztasun egoera aditzera ematen du ala gizon-emakume binomioa baino ez du adierazten?

Gure erakundeak bultzatzen ditugun politikek familia eredu tradizionalari jarraitzen al diote?

Galdera hauek egokiak al dira gure kide diren Hegoaldeko erakundeetan? Eta Iparraldeko GGKEetan?

Bigarren galdera gure kontzientziari buruzkoa da: Iparraldeko ala Hegoaldeko pertsona, erakunde ala komunitate batengana hurbiltzen garenean, genero eta sexu aniztasun ikuspegia kontuan hartzen al dugu? Kontziente al gara aukera, bizitzeko, gozatzeko, izateko modua dela, eta ondorioak eta arriskuak izan badituela?

Genero eta sexu aniztasun ikuspegiak guztiongan du eragina, baina oraingo erronka gisa, sexualitatea eta genero-identitatea dela eta, eskubideak larri urratuak dituzten pertsonak ardatz hartu behar ditugu, bizitza duin eta segurua izateko aukerarik ez baitute. Kooperazio eta HGH lanetan oinarri den justiziari jarraiki, hiritar oso aritu ezin diren pertsonekin elkartasunezko ekintzak aldarrikatzen ditugu.

Beraz, galderak egiten jarraitzen dugu:

Gure egitasmoetan kontuan izaten al ditugu sexu aniztasuna eta genero-identitatea direla eta, eskubideak urratzen zaizkien pertsonak,?

‘Arauetatik kanpo’ bizi diren pertsonak haien komunitate eta herrialdeetan eragile politiko aritzeko ekintzak barne hartzen al dituzte gure egitasmoek? Genero eta sexu aniztasun ikuspegia kontuan hartzen al dugu ahulezia egoeran dauden etorkin eta errefuxiatuen beharren diagnosis egiterakoan? Genero eta sexu aniztasun ikuspegia kontuan izaten al dugu derrigortutako desplazamenduen zergatiak aztertzerakoan eta horietan eragiteko orduan?

‘Arauetatik kanpo’ daudenen ikusgarritasuna Kooperazio eta HGH arloetan dihardugun lanean nola txertatu dezakegun pentsatu al dugu? Abian ditugun ekintzetan aipatu ikuspegia txertatzen lagundu diezaguketen pertsonak edota taldeak kontuan hartu al ditugu?

Hirugarren galdera testuinguruari buruzkoa da, gure eragin-gunean aipatu ikuspegia txertatzea ez baita erraza:

Kooperazio eta HGH arloetan genero eta sexu aniztasun ikuspegia txertatzeaz ari garenean, onartu behar dugu sexu eta genero aniztasuna bidaide eta lankide ditugun pertsonen eta taldeen bizitzetan daudela. Nola errealitatearen azterketa kritikoetan

hala gure eragin-guneetan aurrera eramaten ditugun ekintzetan, bietan ala bietan aipatu ikuspegia kontuan izatea behar-beharrezkoa da.

Ingurunea ezagutzeko galderak egin behar ditugula jakin badakigu, baina, zer galdetu nahi dugu? Zer galdetu diezaiekegu kanpokoei eta zer gure buruari? Irakaste-ikaste prozesuan 'galdera' oinarritzko tresna da, gure ustez, aurrera joaten laguntzen diguna, sortzen duena. Dena zalantzan jartzea, erantzunak alde aurretik eman gabe galderak proposatzea, harreman horizontala ezartzen du galderagile eta erantzulearen artean.

Errealitatea hobeto ezagutu behar dugu, diagnosi onak egin behar ditugu galdera egokiak egin ahal izateko eta gurekin lanean arituko direnen interesa pizteko.

Hurrengo galderak auzi honen gainean hausnartzen lagunduko digute, beharbada:

Genero eta sexu aniztasun ikuspegitik abiatuta, ze zailtasun izan ditzakegu gurekin lanean arituko diren komunitateetan? Egitura soziala, erakunde publiko eta erlijiosoak, eta abarrak gogoan izango ditugu.

Kontuan hartzen al dugu genero eta sexu aniztasun ikuspegia nola bizi duten lanean ari garen ingurune askotarikoetan? Kultura mailan ezberdinak diren testuinguruak, indigenak, hiritarrak, gatazka armatuak dituzten testuinguruak, eta abarrak gogoan izango ditugu.

'Arauetatik kanpo' dauden pertsona eta taldeen beharrak eta eskakizunak ezagutzen al ditugu?

Aipatu pertsonen eta taldeen errealitate eta bazterkeria-egoerak ikusgarri jartzen al ditugu? Eta egoerei aurre hartzeko eta erresistentziarako estrategiak?

Laugarren galdera esku hartzen dugun erakunde politiko eta instituzionalei buruzkoa da. Genero eta sexu aniztasun ikuspegiaren estrategiak bermatuko dituzten legeak, ekintzak eta baliabideak bultzatzeko kultura sortu behar da.

Sistema osoaren krisia pairatzen ari garen honetan, jakin badakigu ezaugarri hauek dituzten prozesuak bultzatzea zaila izan badela. Hala ere, Kooperazio eta HGHeko agendan genero eta sexu aniztasun ikuspegia txertatzeak merezi du, eta norabide honetan ahalegintzeak izango ditu bere sariak: arlo honetan egiten dugun lanaren balioa handituko da, begirada zabalagoa eta prozesu bidezkoetan eragiteko gaitasun handiagoa izango dugu.

Gure ikuspuntutik, erakunde politiko eta instituzionalak euren lan-plangintzetan eta estrategietan aipatu ikuspegia txertatu dezakete: formazio-, eztabaida- eta hausnarketa-prozesuak bultzatuta, LGTTBI kolektiboen eskakizunei erantzunda, sexu orientazio eta genero-identitate zioengatiko bazterkeria aintzat hartuta, eta abar.

Ildo honi jarraiki, nor bere buruari zera galdetzea komeni da: LGTTBI pertsonak kontuan hartzen al dira ekonomikoki bazter utzitako giza-taldearen barruan?, genero eta sexu aniztasun ikuspegia aintzat al daukagu aurrekontuak egiteko orduan?

Auzi honen gaineko hausnarketan honako galderek lagunduko digute, akaso:

Iparraldeko politika publikoetan eragiten al dugu (eta ez soilik Kooperazioari dagozkionetan), HGHaren bidez, kasu, genero eta sexu aniztasun ikuspegiari jarraiki?

Hegoaldeko herrialdeetako politika publikoetan eragiten al dugu, GK eta HGHaren bidez eta genero eta sexu aniztasun ikuspegiari jarraiki?

Erakunde politiko eta instituzionalek genero eta sexu aniztasun ikuspegia txertatu nahiko lukete Kooperazio eta HGH agendan? Txertatua ez badute, ez txertatzeko oztopoak ezagutzen al ditugu?

‘Arauetatik kanpo’ eta bazterkeria egoeran dauden pertsona eta taldeengana heltzen al dira laguntzak?

Ze laguntza eta finantziario eskaintzen dituzte erakunde publikoek, lana genero eta sexu aniztasun ikuspegitik garatzeko?

Bosgarren galdera sarean lan egiteari buruzkoa da, erakundeen arteko sareak ehuntzeko ahalmenari buruzkoa, betiere genero eta sexu aniztasun ikuspegitik abiatuta.

Sarean lan egiteko garrantzia argi dago, besteak beste, ekintzak ikusgarriagoak dira, eragiteko aukera gehiago sortzen ditugu, indar sortzaileagoa eta proposamenak egiteko ahalmen handiagoa dugu.

Honengatik guztiagatik, GGKEen eta Kooperazio eta HGHTik kanpoko pertsona/taldeen arteko sareak eta aliantzak ehundu beharko genituzke. Gaur egin egin daiteke, munduko herrialde ia gehienetan LGTTBI eskubideen babeserako taldeak egon badaudelako, esate baterako. Solasaldi horizontalaren bidez elkar ezagutzeko eta elkartzeko abaguneak probestu behar dira, horixe da falta dena. ‘Arauetatik kanpoko’ pertsona/taldeen behar zehatzak ezagututa, testuinguruaren analisia aberastuko

litzateke, ekintzarako guztien proposamen berriak ekarriko lituzke eta elkarri indarra emango genioke.

Auzi honen gaineko hausnarketan honako galderak lagunduko digute, akaso:

Pentsatu al dugu inoiz kanpoko eragileekin balizko aliantzak egiteari buruz?

Genero eta sexu aniztasun arloan eskarmentu handiagoa duten erakundeen laguntza izan al dugu?

Eta seigarrena...


Genero eta sexu aniztasun ikuspegia zeharkakoa izan liteke gure erakunde osoan: lan egiteko, egitasmoak lantzeko, harremanak egiteko, proposamen berriak irudikatzeko, eragile berriekin elkartzeko, bestelako galderak sortzeko, errealitatean eragiteko... moldeak barne hartuta. Orain arte pertsona, izaera, bizimodu eta desira ugari kanpoan geratu dira.

Genero eta sexu aniztasun ikuspegiak zertan aldatzen du gure orain arteko lana, bai erakunde mailan bai maila pertsonalean?

Sei galdera eta erantzun ugari.

Eztabaidari hasiera besterik ez diogu eman.





Bibliografia

- AA.VV.: 'Yogyakartako Printzipioak. Giza eskubideen nazioarteko legeria sexu orientazioari eta genero-identitateari buruzko gaitan aplikatzeko printzipioak'. ALDARTE Argit. Bilbo, 2010
- Antolín, L.: 'La mitad invisible. Género en la Educación para el Desarrollo'. ACSUR-Las Segovias Argit. Madril, 2003
- Coll-Planas, G.: 'La voluntad y el deseo. La construcción social del género y la sexualidad: el caso de lesbianas, gays y trans'. Egales Argit. Madril, 2010
- Dubois, A.: 'Desarrollo' eta 'Desarrollo Humano', 'Diccionario de Educación para el Desarrollo' Celorio, G. eta López de Munain, A. (koor.), Hegoa Argit. Bilbo, 2007
- Foucault, M.: 'Historia de la sexualidad. Voluntad de saber. Vol. I'. SXXI Argit. Buenos Aires, 1998
- J. Ruiz Vieytez, E: 'Juntos pero no revueltos. Sobre diversidad cultural, democracia y derechos humanos'. Fundación Ellacuría Argit. Eusko Jaurlaritzza. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Inmigrazioa eta aniztasuna kudeatzeko Zuzendaritza. Gasteiz, 2011
- Garaizabal, C.: 'La transgresión del género. Transexualidades, un reto apasionante', 'Transexualidad, transgenerismo y cultura', Nieto, J. A. (bil.). Talasa Argit. Madril 1998
- 'Género', Morales, A. I.: 'Diccionario de Educación para el Desarrollo' Celorio, G. eta López de Munain, A. (koord.) Hegoa Argit. Bilbo
- Guasch, O.: 'La crisis de la heterosexualidad'. Laertes Argit. Bartzelona, 2007
- Mujika, I.: 'Visibilidad y participación social de las mujeres lesbianas en Euskadi', 'P. Francisco de Vitoria GGEEen bilduma', Ararteko Argit. Gasteiz, 2007
- Mujika, I. eta Villar, A.: 'Sexu aniztasuna eta GGEE, Gay, Lesbiana, Transexual eta Sexu Eskubideak': ALDARTE Argit. Bilbo, 2008
- Raquel (Lucas) Platero (arg.) Bellaterra. Bartzelona. 2012. Gerard Coll Planas 'El circo de los horrores', 'Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada'
- Rubin, G.: 'Reflexionando sobre el sexo: notas para una teoría radical de la sexualidad', 'Placer y peligro: explorando la sexualidad femenina'. S. Vance, C. (bil.). Hablan las mujeres Argit. 1989
- Saldivia, L.: 'Reexaminado la Construcción Binaria de la Sexualidad' http://www.law.yale.edu/documents/pdf/Student_Organisations/SELA09_Saldivia_Sp_PV.pdf
- Weeks, J.: 'Valores en una era de incertidumbre', 'Construyendo identidades estudios desde el corazón de una pandemia' Llamas, R. (bil.). SXXI Argit. Madril, 1996
- Weeks, J.: 'Sexualidad'. Paidós Argit. Bartzelona 1998
- 'Cuerpos placenteros. El empoderamiento de las mujeres a través del placer sexual' 'Cuerpos', La Madeja aldizkarian

http://www.localcambalache.org/libros/comentarios_libros/la_madeja_2.htm

- <http://www.sida.se/Documents/Import/pdf/El-trabajo-de-Asdi-sobre-temas-de-Lesbianas-Gays-Bisexuales-y-personas-Transg233nero-en-la-cooperaci243n-al-desarrollo.pdf>
- <http://www.un.org/spanish/millenniumgoals/>